

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 142/2020 Erabakia, martxoaren 10ekoa. Behin betiko onespena ematea Mañuetako udalerrirako egindako ondasun higiezinaren gaineko zergari lotuta dagoen hiri lurzoruaren mugaketari

Otsailaren 6ko 43/2020 Foru Aginduaren bidez, behin-behinean onetsi zen ondasun higiezinaren gaineko zergari lotutako Mañuetako udalerrirako hiri lurzoruaren mugaketa, zeina arau subsidiarioetan egindako zenbait aldaketa puntual direla eta eguneraketak egiteko gauzatu baitzen.

Ondasun higiezinaren gaineko zerga arautzen duen uztailaren 19ko 42/1989 Foru Arauak, 11. artikuluko 4. apartatuan, 15 eguneko epea ezartzen du egoki irizten diren alegazioak aurkezteko, eta epe hori igarota, Mañuetako Udalak ez du inolako desadostasunik adierazi hartutako erabakiarekin.

Horregatik, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuak proposatuta eta Foru Gobernu Kontseiluak gaur bertan egindako bilkuran gaia aztertu ondoren, honako hau

ERABAKITZEN DUT

Lehenengoa. Onestea, erantsita doazen planoen arabera, ondasun higiezinaren gaineko zergari lotutako Mañuetako udalerrirako hiri lurzoruaren mugaketa, zeina arau subsidiarioetan egindako zenbait aldaketa direla eta eguneraketak egiteko gauzatu baitzen.

Bigarrena. Hori gorabehera, kontuan izan behar da Ondasun Higiezinaren gaineko Zergaren uztailaren 19ko 42/1989 Foru Arauak 3.2.b) artikuluan ezarritakoa, hiri izaerako eraikinek okupatzen dituzten eta herriguneetatik kanpo dauden lurzoruen tratamendurako.

Hirugarrena. Erabaki hau ALHAOn argitaratzea, bai eta lurralde historikoko egunkari salduenetan ere. Gainera, jendaurrean egongo da 15 egunez, interesdunek egoki irizten dituzten erreklamazioak jar ditzaten. Mañuetako Udalaren bulegoetan jarriko da jendaurrean, halaxe xedatzen baitute Ondasun Higiezinaren gaineko Zerga arautzen duen uztailaren 19ko 42/1989 Foru Arauak, 11. artikuluko 5. apartatuan, eta hura garatzen duen Diputatuen Kontseiluaren abenduaren 15eko 1080/1992 Foru Dekretuak, 7., 8. eta 9. artikuluetan.

Gasteiz, 2020ko martxoaren 10a

Diputatu nagusia

RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE

Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatua

ITZIAR GONZALO DE ZUAZO

Ogasun zuzendaria

M^a JOSÉ PEREA URTEAGA